2012-IV-24
Número **367.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Noren zerbitzuak?

Jakina zen, hauteskundetan bestelakorik esan bazuen ere, Rajoyk bere agendari segida emango ziola eta erreforma eta murrizketen bideari ekingo ziola. Gainera egin duen iragarpena oso garbia da begiak ireki nahi duenarentzat, behintzat. Hau hasera bakarrik dela eta legegintzako azken egunerarte bide beretik jarraituko duela adierazi baitu. Atzerrian egonik, zerbitzu publikoei eusteko nahiko dirurik ez dagoela gaineratu du. Gehiago behar al du norbaitek horren esanahia ulertzeko?

Hezkuntza ez unibertsitarioan, osasungintzan, menpekotasun politiketan, unibertsitatean eta abar hartu berri dituen erabakiek, krisiaren larritasunean sakontzea besterik ez dute ekarriko, eta erabaki horien ondorioak gehien behar dutenek nozituko dituzte heuren bizimoduan. Hainbat zerbitzutara heltzea zaildu edo garestitu ditu, besteak ezabatu, denetan zerbitzu publikoetako langileon lan baldintzak narriatu eta enplegua suntsitu ditu, lan kargak handituz eta zerbitzuen kalitatea erabat ahulduz. Ez zaigu arrazoia falta esaten dugunean pribatizaziorako bidea prestaturik uzten ari dela epe motzera. Erantzuten ez badugu hori ere ikusiko dugu laister berandu baino.

Herritarren eskubideetan ematen ari den txikizioak ez du etenik eta gehiago etorriko dira, egoeraren gogorraren adierazle. Eta gurean, zer egin behar dute administrazio guztietako agintariek? Aukera gutxi daude: men egin eta otzanki aplikatu Madrilen erabakitakoa edo aurre egin eta ez aplikatu. Hirugarrengo bat ere badago: dimisioa aurkeztu. Politikak herritarren zerbitzura jardun behar badu, bigarren eta hirugarren bidetik joatea besterik ez da geratzen. Hori da gure nahia eta prest gaude gureak emateko neurriei aurre egin eta konfrontazio politikoa irekitzea sinesgarritasunez erabakitzen dutenekin.

Gure bizi baldintzak jokoan daudelako eta eta euskal esparruaren erabakitzeko gaitasunari eutsi nahi diogulako. Aldarrikapen horiei taxuz heltzeko mobilizazio bidetik jarraitzea ezinbestekoa izango zaigu datozenetan, eta halaxe egingo dugu.



**ELA confrontará contra los recortes en Sanidad y Educación, que provocarán deterioro en la calidad de servicios públicos básicos, destrucción de empleo y precarización de condiciones laborales**

# SINDICATO, MÁS QUE NUNCA




Como no podía ser de otra manera, ELA lo ha dicho alto y claro: estamos frontalmente en contra de los recortes en sanidad y educación anunciados por Rajoy así como de la prolongación de la jornada semanal de los empleados/as públicos/as a las 37,5 horas; exigimos a los gobiernos vasco y navarro y a las Diputaciones que no los ejecuten, y adelantamos que, de hacerlo, nos tendrán enfrente.

El secretario general de ELA realizó estas afirmaciones aprovechando la presentación de los actos que ELA llevará a cabo con motivo del 1º de Mayo. Un Primero de Mayo, continuación de las recientes y masivas movilizaciones del 25F y 29M, en el que ELA remarca su línea de reivindicación y lucha, destacando que para ello es imprescindible el fortalecimiento del sindicato.

### ASUMIMOS EL RETO

Txiki afirmó que ELA asume el reto derivado de la reforma laboral; un reto duro, exigente porque "sabemos que solo va a haber negociación colectiva en los ámbitos sindicalizados, que las condiciones de trabajo van a depender del grado de organización sindical". El secretario general insistió en que el sindicato es más necesario que nunca ya que es el único instrumento que le queda a la clase trabajadora en la defensa de sus derechos. "La reforma va a poner a prueba nuestra capacidad de resistencia", afirmó.

Txiki destacó, por otra parte, que detrás de los recortes hay un interés de privatización, "caiga quien caiga"; reiteró sus críticas a una clase política que se ha puesto al servicio de los especuladores y del capital, hecho que calificó de "catástrofe", a la vez que anunció que en la coyuntura actual ELA va a forzarles a retratarse "entre ser dóciles y sumisos a Madrid, como corderos, o rebelarse para defender a sus ciudadanos/as".

Finalmente, el secretario general de ELA adelantó la voluntad de nuestra organización de seguir trabajando alianzas sociales y sindicales para consolidar un espacio alternativo a estas políticas, "que nos llevan al precipicio".

## MAIATZAREN LEHENEAN, DENOK BILBORA!

Langile-klasearen parte izateaz harro bazaude. Inposatu nahi diguten eredu neoliberalaren aurka bazaude. Bestelako mundu bat posible dela uste baduzu. Hamarkada luzetako borrokaren ostean lortutako eskubideak nola suntsitu nahi dituzten ikusteaz nazkatuta bazaude. Erreforma eta murrizketez kokoteraino bazaude. Kalitatezko zerbitzu-publiko unibertsalak defendatzen badituzu. Patronalaren xantaia eta gehiegikeriei aurre egin behar dela uste baduzu. Aberastasunaren bidezko banaketa baten alde borrokatu nahi baduzu. Horietako bat bazara, zorionekoa zu! Maiatzaren lehen egunean zita duzu Bilbon.

Izan ere, ELAk bertan ospatuko du 2012. urteko Maiatzaren Lehena. Egunari 11:30tan emango zaio hasiera, Jesusen Bihotzaren parean izango den hitzaldiarekin. Bertan ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñoz Txikik hartuko du parte. Hitzaldiaren ostean, manifestazio batek Bilboko kale nagusiak zeharkatuko ditu, Plaza Biribilean amaitzeko. Bildutakoei eskerrak eman eta gero, festak Barakaldoko BEC erakustazokan izango du jarraipena.

Bertan urteroko bazkaria izango da, lagun giroan jardunaldi atsegina pasatzeko aukera paregabea. (Ez ahaztu bazkarira joateko txartelak lehenbailehen erosten, agortu baino lehen!). Bazkalostean etxeko gaztetxoenentzat jolas-parkea zabalduko da, txikienen –eta guraso askoren!–gozagarri. Musika, kantuak eta urteroko sorpresak ere ez dira faltako. Hitzordua jarrita dago: Maiatzaren Lehen egunean, Bilbon elkar ikusiko dugu!

# "CADA DÍA NOS ACERCAMOS MÁS AL ESCENARIO GRIEGO"

## Mikel Noval insiste en que los recortes en educación y sanidad anunciados por Rajoy "no pueden ni deben aplicarse aquí"




**-¿Qué valoración hace ELA de los recortes en Educación y Sanidad aprobados la semana pasada en Madrid?**

-Van a agravar la situación de recesión económica, y van a suponer una reducción de la protección social y un aumento del paro. Insisten en la política de empobrecimiento de la población: de manera directa, destruyendo empleo en educación y sanidad, incrementando las aportaciones en el gasto farmaceútico, incrementando las tasas universitarias; y de manera indirecta, al reducir el gasto social y agravar la crisis.

ELA exige un cambio radical de estas políticas neoliberales, que no hacen otra cosa que primar el recorte del déficit público en detrimento de las condiciones de vida y de trabajo de la mayoría de la población. Cada vez nos acercamos más al escenario griego.

**-Se recortan gastos sociales que estaban ya a la cola de Europa.**

-Así es. Si comparamos el gasto público en salud de Hego Euskal Herria con el entorno internacional, podemos observar que la media de gasto en Europa fue del 6,8% del PIB, en comparación con el 4,8% en la CAPV y del 4,7. De esta forma, la CAPV presenta un déficit de 2 puntos del PIB respecto a la media europea y Navarra 2,1.

La misma comparación también nos proporciona resultados similares en educación. En concreto, en el ejercicio 2008 (último ejercicio del que disponemos datos a nivel europeo), el gasto público en educación representó un 5,1% del PIB, mientras que en la CAPV fue del 3,8% y en Navarra del 3,3%. El déficit de la CAPV respecto a la media europea en esta materia es de 1,3 puntos, mientras que en Navarra dicha diferencia asciende a 1,8.

**-Atacar lo público en beneficio de lo privado.**

-Estos recortes conllevan un grave deterioro de la calidad de los sistemas sanitarios y educativos. Empeorar las coberturas públicas significa, también, impulsar los sistemas privados. Representan el mayor ataque al servicio público en Hego Euskal Herria de las últimas décadas.

**-ELA entiende que estos recortes no deben ni pueden aplicarse en la CAPV y Navarra. En este sentido, ¿qué exigencias concretas hacemos a nuestras Administraciones?**

-ELA defiende un autogobierno al servicio de la solidaridad. En este sentido, exigimos a los gobiernos de Iruñea y de Gasteiz, y también a las Diputaciones, que no hagan seguidismo de las políticas de Madrid. Hay razones competenciales, políticas, sociales y sindicales para exigir que aquí no se apliquen esos recortes.

**DEBATE POLÍTICO NO JURÍDICO**

**-No aceptamos, por tanto, el "yo cumplo y luego recurro".**

-Aplicar o no estos recortes no es un debate jurídico sino político. No se puede responder con recursos sino con acción política. En este sentido, exigimos un posicionamiento claro y único a nuestras Administraciones, que no puede ser otro que el de la defensa de su ámbito competencial.

**-Incidiendo en este tema, parece que el gobierno vasco está dispuesto a incrementar la jornada laboral de los empleados públicos –de las 35 horas actuales a las 37,5 horas semanales– a pesar de que es claro que se trata de una competencia vasca.**

-Las 35 horas fueron promulgadas en 1999 por el Parlamento de Navarra y en 2000 por el Parlamento Vasco en las Leyes de la Carta de Derechos Sociales, cuya tramitación fue fruto de sendas Iniciativas Legislativas Populares, que contaron con el aval previo de más de 100.000 firmas. Por tanto, ELA no va a aceptar que ninguna Administración alegue estar obligada a aplicar esta medida.

**-ELA exige un cambio radical de políticas.**

-ELA exige al conjunto de las instituciones de Hego Euskal Herria que abandone las políticas de recorte y que se comprometa en el desarrollo de los servicios públicos.

Llama la atención el doble rasero que utilizan los responsables de nuestras instituciones al presentarse ante la prensa como los grandes defensores del Estado de Bienestar cuando ya han impuesto recortes en los servicios públicos mucho antes de que se anunciasen estas últimas medidas. No hay más que analizar los presupuestos presentados para 2012.

Además, presentan estas medidas a la sociedad como inevitables, como si fueran la única alternativa, algo que, no nos cansamos de denunciar, es falso. Son posibles y necesarias otras políticas. Y no somos ya los únicos que lo afirmamos. Todos los días están viendo la luz informes, como uno muy reciente del propio Fondo Monetario Internacional, nada sospechoso de estar al servicio del sindicalismo reivindicativo, que alertan sobre las consecuencias de estos recortes.

Hay alternativa. Sólo hay que mirar a Islandia, país en el que están juzgando a los causantes de la crisis financiera; a Argentina, que apuesta por la nacionalización de sectores estratégicos y no por la privatización...

**-Trabajan para ellos. Cada vez nos dejan con menos derechos... En ELA tenemos claro que solo nos queda la movilización.**

-ELA va a seguir impulsando la movilización sindical y social creada en torno al 25F, y que ha tenido continuidad en el 29M. Estamos obligados a seguir en la movilización, a sumar cada vez más gente a nuestro bando, a socializar nuestras propuestas y protestas. Tenemos que ser capaces de hacer reaccionar a la gente y ponerla en pie de lucha. No hay otra salida.

# "DENA PRIBATIZATU NAHI DUTE"



## Igor Eizagirre, Gizalaneko idazkari nagusia

Azken egunetan Espainiako Gobernuak hainbat murrizketa larriren berri eman du, batez ere irakaskuntzaren eta osasungintzaren alorrean. ELA-Gizalan federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirrek neurri horiek gogor salatzen ditu, eta azken hamarkadetako larrienak direla azpimarratzen du.

**-Zein irakurketa egiten duzu iragarri berri dituzten murrizketen inguruan?**

-Oso larriak dira. Lanpostuak galdu eta lan-baldintzak nabarmen okertuko dira, eta horrek, ezinbestean, ondorioak izango ditu zerbitzu-publikoen kalitatean. ELAk neurri hauek erabat arbuiatzen ditu eta Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari exijitzen die neurriok ez aplikatzea eta aintzat hartzea euskal esparruan sinatutako akordioak.

**-Lehendabizi irakaskuntzaren alorrekoak aurkeztu ziren...**

-Hezkuntzako ministro Jose Ignacio Wertek sektorean 3.000 milioi euro murrizteko Erkidego Autonomikoei aurkeztu duen planak gizarte demokratiko batean funtsezkoa den hezkuntza zerbitzua arriskuan jartzen du. Gelako ikasleen ratioaren gehitzen da, ikasleen legezko muga %20a handitzea espero delarik; Lehen hezkuntzan 25 irakastorduko minimoa ezartzen da, eta bigarren hezkuntzan 20; hamar egun baino gutxiagoko irakaslegoaren bajak ez dituzte beteko, baja hauek zentro bakoitzeko baliabideekin beteko dituzte; soldata osagarriak izoztu edo murriztuko dituzte... Hau guztia aski eta soberan da erasoaren bortizkeriaz jabetzeko.

**-Ondoren Osasungintzaren alorreko neurriak aurkeztu ziren...**

-Hemen gertatutakoa ere oso gogorra da. Izugarri larria da merkatuak kontent utzi eta negozio egitearen aitzakiarekin osasunaren ezinbesteko eskubidea erasotzea. Osasuna, kapitalak eta agintari askok nahi dutenaren kontra, ez da negozio bat eta honen aurka egin behar dugu. Osasungintza merkantilizatu eta pribatizazio bidean beste urrats bat ematen dute. Gaixoek sendagaiak ordaintzeaz gain, atzerritarrei osasun-arreta mugatzea eta politika soziosanitarioa deritzona, hau da, gaixoak ospitaletatik egoitzetara eramatea diru publikoa aurreztearren bereziki larria iruditzen zaizkigu .

**ELAk lan osasun eta segurtasunaren inguruko txostena aurkeztu du; 2011. urtean izandako ezbehar kopurua aztertzea aski da arazoari aurre egiteko borondate politikorik ez dagoela ondorioztatzeko**

# “LAN-ERREFORMAK EZBEHAR TASA HANDITZEA ERAGINGO DU”




**Lan osasun arduradun Leire Txakartegi eta Leire Herediak salatzen dutenez, ezbeharrei dagokienez, iragan urtean ez zen hobetu egoera Hego Euskal Herrian. Eurak izan ziren Adolfo Muñoz idazkari nagusiarekin batera apirilaren 19an gai honen inguruan ELAk egin berri duen txostena aurkezteaz arduratu zirenak.**

**-ELAk iragan urtean lan osasun eta segurtasunaren inguruko txostena aurkeztu berri du. Datuak erreparatuz gero, zein da egoera?**

-2011n Hego Euskal Herriko enpresen egoera, ezbeharrei dagokienez, ez da batere hobetu; batez ere kontuan hartzen badugu egungo ekonomiaren abagunea kausa jarduera gutxitu dela.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osalanek emandako datu ofizialak aintzat hartuz, 2011n 81.149 lan-istripu gertatu ziren, haietatik 47.137 baja hartu barik, eta 34.012 baja hartuta. 2010. urtean Osalanek 88.436 lan-istripu zenbatu zituen, haietatik 50.328 baja hartu barik, eta 38.111 baja hartuta.

Heriozko istripuen kasuan, Osalanek erregistro paraleloa eramaten du. Bi ituri horiek bilduz Osalanek 61 heriozko istripu zenbatu ditu, baina badira beste batzuk estatistika ofizialetan jasotzen ez direnak: autonomoek edo kooperatibistek jasandako istripuak, *in itinere* istripuak, heriozko istripua izan duten kanpotarrak, mutualitateek lan-istriputzat hartu ez duten istripuak...

Nafarroan, 2011ko estatistika ofizialaren arabera, baja sorrarazi duten lan-istripuen kopurua 8.710koa da; horietatik 8.622 istripu arinak izan dira, 78 larriak, eta 10 heriozkoak. Ezbeharrei buruzko txosten ofizial batek dioenez ezbeharrak %6,8 jaitsi dira, iazko ekitaldiaren aldean.

**-Beraz, egoera datu ofizialek diotena baina askoz ere larriagoa da...**

-Bai. Estatistika ofizialak ez dira benetako egoeraren adierazgarriak. Bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak modu interesatuan eta lerratuan interpretatzen dituzte datuak, eskainitako informazioa partziala eta kalitate eskasekoa baita

Hori dela-eta erakunde ofizialek jasotako datuak ez datoz bat. Horregatik, heriozko istripuen kopurua ez da errealitatearen erakusgarri. Patronala ere ez dabil oso urruti ezbeharren datuak interpretatzeko modu subjektibo horretatik.

**-Datuak aztertu ostean, zein da ELAk egiten duen analisia?**

-Krisiaren eraginez lan-jarduerak izugarri behera egin arren, ELAk zenbatu dituen heriozko lan-istripuen kopurua %2,56 jaitsi da soil-soilik: 2010ean 80 hildako zenbatu baziren, 2011n 78.

Lan-istripuak eta gaixotasunak ezkutatzeko enpresek daramaten praktika irregularra aipatu behar dugu hemen. Enpresak *bonus* delakoa lortzen ahalegintzen dira: enpresa batek lan-ezbeharren tasa murriztu duela frogatzen badu, Gizarte Segurantzak murriztuko dizkio lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen kotizazioak. Askotan, enpresak ez du agiririk ematen mutualitatera joateko. Istripu horiek ez dira inon islatzen, eta enpresak lehen aipaturiko hobariak eskuratu ahal izango ditu.

Istripu ez traumatikoen kasuan %10 igo dira, 2010. urtearen aldean. Horren haritik, gogoratu behar da tankera psikosozialeko arazoak gero eta ugariagoak direla enpresetan, langileen osasunaren kaltetan, zeren heriozko istripu eta gaixotasunen eragile baitira. Arrisku psikosozialak antzemateko eta zehazteko baliabideak urriak dira –giza baliabideak zein teknikoak–, eta prebentzio-neurriak ere eskasak dira; nahiz eta nahaste psikosozialekin loturiko istripuak eta patologiak goraka joan etengabe.

**-Urtez urte datuak gero eta kezkagarriagoak dira. Zergatik?**

-Datuen gorabeheren gainetik, ezbeharrek egitura-osagaiak ere badituzte, eta ELAtik behin eta berriro salatu ditugu: goraka doan prekarietatea; azpikontratazio-indize hain handiak; lan-erritmo itogarriak; eta prestakuntzaren gabezia. Horiexek dira gizarte-gaitz horren arrazoi nagusiak. Lan-erreformak areagotu egingo du ikaragarria den ezbeharren tasa, lan-merkatua are prekarioago bilakatuko baitu.

**-Aurkeztu berri dugun txostenak gogor salatzen du bai administrazioen eta bai patronalaren jarrera.**

-EAEko eta Nafarroako administrazioek ez dute hartu ez politikarik, ezta neurririk ere, arazo horren benetako zioei behar bezala aurre egiteko. Segurtasuna eta osasuna hobetzea ez bide da lehentasun politikoa gobernu horientzat. Esandakoaren isla ederki ikus daiteke azken urteotako aurrekontuen eskandaluzko murrizketetan, bai Nafarroako Lan Osasunaren Institutuarenean, bai Osalanenean.

Ezbeharrei aurre egin nahi izatekotan, patronalaren interesen kaltetan doazen neurriak hartu behar dira. Hala ere, gobernuak eta patronalak ados daude nahi duten lan-harremanen ereduarekin. Eta ontzat jotzen dira prekarietatea, kontratazioaren arloko legeiruzurra eta neurriz kanpoko azpikontratazioa.

**-Zein ondorio ditu egungo abagune ekonomikoak lan osasun eta segurtasunaren alorrean?**

-Ekonomiaren oraingo egoera bereziki aipatu beharrekoa da, enplegua suntsitzeko eta jarduera gutxitzeko dituen ondorioengatik. Enpresek egoera urriari erantzuteko moduetako bat prebentziorako inbertsioak murriztea da; baina hori, zer esanik ez, lan-osasunaren eta segurtasunaren kaltetan doa. Enpresen praktika irregularrak gero eta ugariagoak dira, eta kaleratuak izateko langileen beldurraz baliatuz ezbeharren benetako datuak ostentzen dituzte sarri-askotan.

Lanbide-gaixotasunei dagokienez, axolagabekeria erabatekoa da. Datu ofizialek ez dute errealitatea islatzen. Lanbide-gaixotasunak ezkutuan mantentzen dira, eta benetan direnak baino askoz gutxiago jakinarazten dituztela.

Osasun Sailak susmo-agiriak jakinarazteko duen eginbeharra ez du behar bezala betetzen. Horretarako eskumenak izan arren, administrazioek ez dute esku hartzen prebentzio-zerbitzuen aurka, honelako kasuak gertatzen direnean: prebentzio-zerbitzuek, mutualitateei kontingentzia hori ez leporatzearren, lanbide-gaixotasunen susmoak jakinarazi ez eta gehienetan osasun-zerbitzu publikora desbideratzen dutenean.

## “SIN VOLUNTAD POLÍTICA ES IMPOSIBLE ATACAR LOS COMPONENTES ESTRUCTURALES DE LA SINIESTRALIDAD”

El *Informe de siniestralidad en Hego Euskal Herria 2011* presentado por ELA el pasado 19 de abril deja en evidencia que la situación de las empresas en Hego Euskal Herria en materia de siniestralidad no ha registrado ninguna mejoría, máxime si tenemos en cuenta el descenso de actividad en la actual coyuntura económica. El informe recoge unas serie de propuestas que hace ELA sobre esta materia, que recogemos en las siguientes líneas.

- ELA exige un cambio radical en las políticas públicas aplicadas por los gobiernos en esta materia. Para ello, la dotación presupuestaria debe subir hasta ser suficiente para cubrir las necesidades existentes.
- El empleo digno y con derechos debe ser prioritario en la acción de los gobiernos. Esto supone impulsar políticas de creación de empleo y aumentar los derechos laborales, eliminando la precariedad, la subcontratación sin control y el fraude de ley en la contratación.
- Reclamamos a las instituciones competentes actuaciones sancionadoras ejemplarizantes, tanto contra las empresas como los servicios médicos y de prevención. El objeto de las mismas debe ser la identificación de las malas prácticas realizadas en materia preventiva, combatiéndolas en origen para lograr mejoras en los centros de trabajo en la salud de los trabajadores y trabajadoras.
- ELA impulsará la acción sindical y la negociación colectiva como instrumentos de mejora de la salud laboral. Sólo a través de la concienciación, organización y movilización sindicales avanzaremos en nuestras reivindicaciones.

## El Tribunal Supremo avala la posición de la sección sindical de ELA

# MERCEDES-BENZ DE GASTEIZ TENDRÁ QUE ABONAR 5 MILLONES DE EUROS POR ATRASOS



*En la imagen algunos de los responsables de ELA en Mercedes-Benz de Vitoria-Gasteiz; gracias a su lucha y trabajo la empresa tendrá que abonar 5 mllones de euros por atrasos.*

La empresa Mercedes Benz deberá abonar más de cinco millones de euros a su plantilla de la factoría de Vitoria-Gasteiz en concepto de atrasos, tras una sentencia del Tribunal Supremo que ha dado la razón a una demanda interpuesta por ELA. Igor Guevera, miembro de ELA en el comité de empresa, nos habla de esta sentencia y de lo que supone para las y los trabajadores de Mercedes.

**-¿Cuál era la petición de la sección sindical de ELA?**

-Los primeros pasos los dimos en enero de 2010 tras ver lo que había pasado con los incrementos salariales pactados en el acuerdo anterior (2007-2010). En concreto, el problema estaba en los descuentos que la empresa aplicó a la plantilla en 2009 y 2010 por el desfase entre el IPC previsto en los años 2008 y 2009 -2% en ambos años- y el IPC real: 1,4%, en 2008, y 0,8, en 2009. Tras confirmarse los IPCs definitivos, la empresa, unilateralmente, decidió descontar en las nóminas de sus trabajadores/as las cantidades "pagadas de más".

Nuestro sindicato, aún no siendo firmante del acuerdo, defendió la posición más ventajosa para las y los trabajadores, pese a que los propios sindicatos firmantes (UGT, CCOO, USO y Ekintza) decidieron mirar hacia otro lado.

Tras un peregrinaje judicial en el que no ha sido nada fácil llevar adelante nuestra reclamación, el pasado 26 de marzo se nos notificó que el Tribunal Supremo había fallado a favor nuestro, obligando a la empresa a abonar todas las cantidades reclamadas por los servicios jurídicos de ELA.

**-¿Qué supone esta sentencia?**

-En primer lugar, desde ELA exigimos que la empresa asuma la sentencia y proceda a abonar de forma inmediata las cantidades que adeuda a la plantilla.

En febrero de 2009, la dirección de la multinacional alemana comunicó a las y los trabajadores que, en virtud de la cláusula que actualizaba automáticamente el IPC previsto al real, cada trabajador/a debía a la empresa en torno a 180 euros de media, por el desfase entre ambos, por las nóminas percibidas en 2008. Se decidió que el incremento salarial de 2008 fuera descontado en seis plazos correspondientes a las nóminas entre febrero y julio. El fallo judicial entiende que esa cláusula no puede aplicarse, como se hizo, en caso negativo.

Por otra parte, la dirección de la empresa, sabiendo que había posibilidades reales de que ELA ganase la demanda, consiguió que en la redacción del convenio siguiente (2011-2015) los sindicatos firmantes (UGT, CCOO, USO, Ekintza y CGT) "tragaran" con una redacción diferente, para así poder evitar que esta situación pudiera repetirse en un futuro.

## Laburrak

### Adegik ez du nahi Gipuzkoako metalgintza alorreko hitzarmena enpresa guztietara zabaltzea

Apirilaren 17an Gipuzkoako Metalgintza Hitzarmenaren Negoziazio Mahaiaren bederatzigarren bilera egin zen. Bileran Adegik ezetz erantzun zion ELAren proposamenari; bere jarrerarekin, Adegi Gipuzkoako lan hitzarmena, jatorrizko egitura gordez, enpresa guztietara zabaltzearen aurka azaldu da. Aurreko bileran ELAk negoziazio mahaiari aurkeztu zion testuak negoziazioetan hasteko bidea ematen zuen, lan-erreformaren ondorioak alde batera uzteko abiapuntua harturik. Helburua Gipuzkoako Metalgintzaren oraingo Hitzarmenaren edukiari eustea zen, lan-baldintzetan atzera egin gabe. ELAk dei egiten dio Adegiri hartu behar duen erabakiaz gogoeta egiteko.

### ELA denuncia 70 despidos en la Clínica Álava

ELA denuncia que la dirección de la Clínica Álava pretende despedir a 70 trabajadores/as, aproximadamente dos tercios de la plantilla, dentro del proceso concursal abierto recientemente.

Según ELA, la delicada situación económica de la clínica es debida, fundamentalmente, a la nefasta gestión realizada por sus distintos gestores, y se ha visto agravada por la decisión de los actuales propietarios de no renovar el contrato en vigor con la Diputación foral de Álava.

### TS Fundiciones pretende destruir 16 puestos de trabajo

La reestructuración de la plantilla de la empresa TS Fundiciones de Zestoa ha acabado con la destrucción de 16 puestos de trabajo. ELA recuerda que la plantilla lleva desde el 2009 con el sueldo congelado y una importante reducción salarial como consecuencia de los EREs, mientras se incentivan con bonificaciones a otros colectivos.

### Un mes de huelga en Logifrio

La plantilla de la empresa Logifrio, de Etxebarri, se encuentra en huelga indefinida desde el 1 de marzo para exigir la readmisión de un despedido. Este trabajador ya fue despedido hace 2 años por el mismo motivo y también sus compañeros fueron a la huelga hasta conseguir su readmisión.

La empresa argumenta que sus funciones se trasladan a Barcelona, "por lo que no tiene sitio en la empresa".

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

**Franqueo concertado nº 08/207**